

MONDRAGON CITY CHALLENGEren bigarren edizioaren 2. fasea hasi da

Izena emateko 0. fasean zazpi herrialdetako (Kolonia, Malaysia, Belgika, Alemania, Tanzania, Estatu Batuak eta Espainia –Euskadi, Nafarroa eta Valentziako Erkidegoa–) 108 taldetako 248 gaztek izena eman eta gero, eta , eta 1. fasean sailkatutako 20 taldeak ezagutu ondoren, enpresaren proiektu kooperatiboa garatzeko unea iritsi da, “Enpresa Proiektu Kooperatiboaren Gida” oinarritzat hartuta.

2. fasea hasteko, joan den azaroaren 30ean taldeek beren proiektuak zehazteko moduari buruzko orientazio hitzaldi bat jaso zuten.

Xabi Perez kazetariak gidatutako hitzaldi horretan, lehenik eta behin, Mondragon Team Academyko “team coach” eta talde ekintzaileen entrenatzaile Maider Villaverdek hartu zuen parte, eta epaimahai profesionalaren aurrean aurkeztu behar duten proiektua idazteko gakoak eskaini zituen. Ondoren, Josean Apariciok, Laboral Kutxako Debagoiena eta Goierri zonaldeko zuzendariak, enpresa mentoreek lehiaketan duten eginkizunaren testigantza eman zuen, hau da, talde parte hartzaileak beren instalazioetara gonbidatzea “ibilbide kooperatiboetan” zehar, enpresa kooperatibo baten funtzionamendua sakon ezagutzeko. Azkenik, tutoreen ordezkariak aritu ziren, Asekoopeko Norberto Alboniga eta Arizmendiarrietaren Lagunak Elkarteko Mikel Lezamiz, eta azaldu zuten tutoreen eginkizuna proiektuaren babesa eta jarraipena egitea dela, eta parte hartzaileak babestea eta balio erantsia ematea. Esan behar da gure Elkarreak 13 tutoreekin parte hartzen duela.

Halaber, adierazi behar da parte hartzen duten taldeek 2023ko otsailaren 6rako aurkeztu behar dutela beren proiektu kooperatiboa. Hilabete batez, epaimahai profesionalak 20 proiektuetako bakoitza aztertuko du zehatz-mehatz, baloratzeko irizpide komunak erabiliz, eta martxoaren 8an jakinaraziko dira Mondragon City Challengeren bigarren edizioko 6 finalistak. Finala Arrasateko Amaia Antzokian izango da, 2023ko apirilaren 21ean.